

BALOREZKO PROPOSAMENA

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

Gu Euskal Herriko nekazari talde bat gara eta gure produktuekin elikadura hobea eskaini nahi diegu gure bezeroei.

Bertoko produktua nahi baduzu, ez duzu supermerkatuan bila ibili beharko. Sustraiak merkatuan zure etxetik oso hurbil egindako produktuak aurkitu ditzakezu. Gainera gure produktuak Euskal Herriko hainbat baratzeetatik ateratakoak dira, %100 ekologikoak. Badaude Euskal Herrian ekoiztu ezin diren, baina egunerokotasunean kontsumitzen ditugun produktuak, platanook edo azukrea adibidez. Produktu hauek elikagai onuragarritzat eta kalitatezkoztat jotzen ditugu, beraz, Sustrai merkatuan aurkituko dituzu.